

ORDIZIA ▶ GIZARTEA

Udalari herri-kontsulta eskatu diote

Oianguko egitasmoaren kontrako manifestazioa egin dute Ordizian

MAIDER DEL OLMO

Oiangu Parkea Bizirik natur elkarteak *Oiangu: herri-kontsulta* lelopean manifestazioa egin zuen atzo. Euripean egin zuten ibilaldi osoa. Helburua Ordiziako Udalari Oianguko parkearen egitasmoaren inguruan herri-kontsulta eskatzea zen. Kontsultaren alde adinez nagusi diren ordiziarren sinadurak biltzen ere aritu ziren plazan arratsaldean. Manifestazioaren bukaeran Patxi Zubizarreta idazle ordiziarra idatzitako testua irakurri zuten.

Manifestazioak hainbat eragileren, alderdi politikoren eta sindikaturen babesa izan zuen, hala nola: Aralar Berdeak, Eguzki, EHGAM, Ekologistak Martxan, Ezker Batua, LAB, Landarlan, Ordiziarrek Gera, Zutik, Ordiziako Gazte Asanblada, Haritzalde elkarte eta Kristina-Enea Parkea Bizirik elkarte. Manifestariak plazatik abiatu ziren eta herriko kaleak zeharkatu zituzten Oianguko egitasmoaren kontrako oihuak botatz.

Oiangu Parkea Bizirik natur elkartek ordiziarren 1.125 sinadura biltzea dute helburu,



Manifestazioa Ordizia kalean zehar, atzo. MAIDER DEL OLMO

eta oraingoz erdiak bilduta ditzela aurreratu dute. Edurne Huesa elkarteko kidearen hitzetan, «sinadura-orriak herriko dendetan eta tabernetan zabaldu ditugu; beraz, oraindik ere denak bildu ez ditugunez erdiak baino gehiago lortu ditzugula esan daiteke».

Elkartetik adierazi dutenez, «hala ere, oraindik sinatu ez duen jendea ere esan nahi diogu sinatzeko, eta horretarako asteburuan ere aukera izango dutela plazan jarriko ditugun ma-

haitan», esan zuen elkarteko kide batek, atzo. Aurretik beste sinadura biltzaile batzuk eginak badituzte ere, oraingoak beste helburu bat duela gogorazi zuten: «Udalari herri-kontsulta eskatzea».

Gaur sinatzeko mahaiaik arratsaldean jarriko dituzte plazan, sei etatik zortzietara, eta bihar eguerdiko ordubietatik lauretara egongo da sinatzeko aukera, mahai ibiltariak jarriko baitituzte herriko hainbat tokitan.

ORDIZIA ▶ GIZARTEA

Mitoak puskatuz

‘Supermercados no, gracias’ ekimeneko kideak, Xavier Montanyesek, saltoki handien jarduera salatu du Ordizian

M. DEL OLMO

Supermerkatuek lanpostuak sortzen dituzte, erosketak azkarrago egiteko balio dute eta merkeagoak dira». Horiak dira, saltoki handien inguruan gehien zabaldu dauden «mitoak», Xavier Montanyes *Supermercados no gracias* ekimeneko kidearen arabera «faltzuak». Gezurra denak ere, bere esanetan.

Goierriko Baratzak gonbidatuta, Ordizian *Nos comemos el mundo* izenburupeko hitzaldia eman zuen herenegun AHTrI buruzko Informazio Gunean. Montanyes ONGD sarearen sortzaileetako bat da. Sare hori «kontsumo kritikoa» bultzatzen duen elkarte eta talde desberdinek osatzen dute Katalunian. Montanyesek, gainera, ibilbide luzea du nekazaritza

menduan. Ordizian nekazaritza subiraiztaren alde hitz egin zuen, eta horrekin lotuta, gaur egungo bizi eredu eta kontsumo ohiturak aztertut zituen.

Bere esanetan, saltoki handiak «dena jaten» ari dira. «Oso modu errazean esanda, ulertzeko, etsai handia da, oso azkar doana». Saltoki bat zabalduz dute lekuan, auzoan edo herrian desertizazioa nagusitzen dela dio, «inguruko dendak ixten direlako eta langileen prekaritate bultzatzen delako, beste batzuen artean». Katalunian saltoki handien kontra mugimendu zabalda eta interesgarria sortu dela dio, eta «aldaketarako bide berria» zabaldu dela uste du.

Arrazoi asko daude, bere iritziz, saltoki handien kontra egoteko, eta horietako bat nekazaritza subiraiztaren kontra egiten dutela da. Montanyesek



Xavier Montanyes, ezkerretik hirugarrena, Ordiziako AHTrI buruzko Informazio Gunean, herenegun. M. DEL OLMO

Europako Batasunaren nekazaritza politikak jarri zituen adibidetzat: «Nekazaritzako elikagaien politikak lobby-en zerbitzura daude, supermerkatuen menpe», erantsi zuen, hurrena ondorioztatuz: «Gaur egun ez dago gure esku zer jan».

Hitzaldira bertaratuak jendek ere eman zuten gaiaren inguruko iritzia, eta Euskal Herri eta orritara hainbat kezka plazaratu zituzten; horien artean

nekazaritza politiken inguruan eta herritarren kontsumo ohituren inguruan. Kontsumo ohiturak aldatzea nahitaezko jo zuten: «Gaur egun ez dakigu garai bakoitzean ez zer landatu behar den, ez zeintzuk diren garaian garaiak jakia». Aldaketak posible direla uste du Montanyesek eta horretarako bide bat proposatu zuen: «Indarrak batzea, izan bizilagun elkartekoa edo okupa mugimendukoa, bat egitea». ◀

Ormaiztegiako Zumalakarregi Museoa

Aisialdi arloan eta taldeekin esperientzia duen gidari bat behar du

Orduetgia:
- Osteguna eta ostirala 10:00etatik 13:00etara.
- Larunbata, igandea eta jaiegunak 11:00etatik 14:00etara / 16:00etatik 19:00etara.
Eskaintzen da:
- Kontratazio eta gizarate aseguratza.

Informazio gehiago Zumalakarregi Museoa: 943 889900

(Kurrikuluma aurkezteko epea: martxoaren 27a, eguerdiko 13:00etan. e-maila: mzumalakarregi@gipuzkoa.net)

ASTE BURUKO KIROL EGITARAUA ▶

ERRUGBIA

Ohorezko Maila.
Getxo-Kitmar Ordizia Gaur 16:00 (Getxo)

FUTBOLA

3. Maila.
Santurtzi-Beasain Bihar 11:15 (San Jorge)

Preferentea.

Idiazabal-Martutene Gaur 16:30 (Arizkor.)
Berio-Urola Bihar 12:00 (Berio)
Aloña Mendi-Ordizia Bihar 16:30 (Oñati)

1. Erregionala.

Segura-Bergara Gaur 16:30 (Alustiza)
Iñitxa-Eibartrarak Gaur 16:30 (Bikuña)

2. Erregionala.

Soraluze-Lazkao Gaur 16:30 (Ezozia)
Emakumezkoen Liga.
Urola-Anaitasuna Bihar 12:00 (Argxao)

Jubenilen Ohorezko Maila.

Beasain-Beti Gazte Gaur 15:30 (Igartza)
Urola-Santo Tomas Gaur 17:30 (Bikuña)
Mariño-Ordizia Gaur 17:30 (Irun)

Jubenilen 1. Maila.

Amaroz-Idiazabal Gaur 15:30 (Usabal)
Lasarte-Segura Gaur 15:30 (Michelin)
Iñitxa-Lazkao Gaur 16:00 (Alegia)

Iñitxa-Oiarzun Bihar 16:00 (Bikuña)
Beasain-Soraluze Bihar 17:15 (Igartza)

Kadeteen Ohorezko Maila.

Antiguoko B-Beasain Gaur 13:00 (Berio)
Urola-Hernani Gaur 15:30 (Argxao)
Ordizia-Lengokoak Gaur 17:30 (Altamira)

Kadeteen 1. Maila.

Idiazabal-Lasarte Gaur 10:30 (Arizkorreta)
Ostadar-Beasain B Gaur 10:30 (Michelin)
Aitzgorri-Amaroz Gaur 11:00 (Alustiza)

Lazkao-Behobia Gaur 11:30 (Haritz Handi)
Ikasberri-Iñitxa Gaur 17:00 (Azpettia)

Kadete neskek.

Ordizia-Dunboa Gaur 15:30 (Altamira)
Mariño-Lazkao Bihar 10:15 (Irun)

SASKIBALOA

Autonomikoa.

Goierri Verkol-Santurtzi Gaur 18:00 (Aldiri)

Senior mutilak.

Tximista-Cafes Aitona Gaur 16:00 (Bikuña)
Irun Basket-Ordizia Bihar 12:00 (Artaleku)

Senior neskek.

Andraitx-Aiorga Gaur 16:00 (Bikuña)
Easo Loiola-Ordizia Bihar 12:00 (Donostia)

Junior mutilak.

Deutsche S.-Ordizia Gaur 12:30 (Donostia)
Hernani-Goierri Alberdi Gaur 16:30 (Hern.)
Andraitx-Aloña Mendi Gaur 16:00 (Bikuña)

Easo B-BKL/CAF Gaur 18:00 (Bidebieta)

Junior neskek.

Intern.Mons-Andraitx Gaur 10:45 (Mons)
Goierri Irizar-BKL/CAF Gaur 16:00 (Aldiri)

ARETO FUTBOLA

Euskal Liga, mutilak.

Infracoman-Goierri Gaur 16:15 (Gorostiza)

Gipuzkoako 1. Maila.

Hondarribia-Bilkoen Gaur 18:00 (Hondarribia)
La Bellota-Oiarzun Gaur 19:30 (Bikuña)

Beasain. Koadrila artekoa. Gaur.

Zintzarri-M. Txindoki 14:15 (Antiziar)
Spazum-Zumurruri 15:10 (Antiziar)

Nelson Pig-Astrapalada 17:50 (Antiziar)
M.Oiarbide-Los Chicos DM 18:45 (Antiziar)

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Jatebe baterako kamarera euskalduna behar da. Egunero lan egiteko. 943 88 00 44.

GALDUA

Eskumuturrekoa. Ostiral gauean pultsera lodi samarra galdu zen Ordizian. Aurkitu duenak Kixmi dendan utz dezala.

OPARI

Txakurra. Hiru urteko setterra oparitzen da. 659 219 237.